

Lehen Hezkuntzako 200 ikaslek baino gehiagok San Antonioko liburutegirako bidea markatu dute liburuaren eguna ospatzeko

Joxe Rojas

Irakurri kanpainaren barruan, eta “Liburutegien Nazioarteko Eguna” ospatzeko, San Antonio Ikastetxeko 200 ikasle baino gehiagok San Antonioko liburutegirako lau bide markatu zituzten, auzoko lau abiapuntu ezberdinetatik.

Goizeko 10etatik 11etara, haur hezkuntzako 68 ikaslek; 6/7 urteko 50ek; lehen hezkuntzako 3. eta 4. mailako 45ek eta 10/11 urteko beste 50ek lan horri ekin zioten, “ikastetxeko irakasleen lan apartak bultzatuta”. Etxebarriko Udal Liburutegi Zerbitzuetako arduradunen hitzetan, maisu-maistrek “primerako lana egin dute, eta ekimenarekin bat egiteko gogoia adierazi dute uneoro”. Kanpaina Eusko Jaurlaritzaren ekimenez sortu da.

Kilometro bateko zinta

Bideak markatzeko, ikasleek kilometro bateko zinta et geziak erabili zituzten. Materiala Liburutegi Zerbitzuak eman zien, eta kanpainaren leloaz markatuta zegoen. Horrez gain, umeei beraiek prestatutako kartelak ere erabili zituzten. Karteletan “San Antonio liburutegirako bidea – Camino de la biblioteca San Antonio” eta bestelako mezuak ere irakur zitezkeen.

San Antonioko kalean zeharreko lau ibilbideek helmuga bera zuten: liburutegia bera. Bertan, haurrentzako 200 bat liburu eman zitzaizkien ikasleei, eskolako liburutegirako. Gainera, ikasleek kanpainarako prestatutako orri-banatzailaak eta kalkomaniak ere jaso zituzten.

Ekainetik martxan

Kanpaina beraren barruan, Etxebarriko Bekosolo Liburutegia ekainean atera zen kalera, eta ageri-agerian egon zen metro geltokian zein osasun zentruan. Liburutegiak berak argitaratutako irakur gidaren aleak banatu zituen. Gida herriko saltokien, elkarten eta erakundeen bidez ere banatu zen.